

Urkillaga-Agautz zirkularra



P. Aparkalekua. Ataungo Aia auzoko Urkillaga gaineko aparkalekuan utziko dugu autoa.



1. Hasiera puntua. Aparkalekuan bertan emango diogu hasiera ibilbideari. Pistan abiatu eta metro gutxira, GR arrastodun langa bat dago ezker aldera. Hori hartu beharra igoerari ekiteko.



2. Artadian gora. Ibilbidearen lehen kilometroa artadia zeharkatzen duen bidezidorrean egingo dugu. GR arrastoek erakutsiko digute bidearen noranzkoa.



3. Artadiaren bukaera. Artaditik irtenda, bestelakoa da paisaia. Aia, Lizarrusti, Atxu, Dorronsoro gaina eta Aizkorri ikusten dira, besteak beste. Ibilbidearen lehen ordu erdia osatuta.



4. Pagadia inguratuz. Galbiderik gabeko bidezidorrean gora goaz –azti, hala ere, GRa utzi gabe–, pagadi ertz batean.



5. Leizadira doan bidean utzi. Ez da bidegurutze argi bat, eta nahasteko aukera dago tarte honetan. GR-ari jarraitu behar zaio eskuin aldeko bidezidorretik, Leizadi mendira doana ezkerrera utziz.



6. Pago eta harkaitz artean. Bidearen zati hau pago eta harkaitz arteko pasabide eroso batean egiten da.



7. Txabola eroria. Lizar artean dagoen txabola erori batera iritsiko gara, garai bateko sarioia batera (861 m.). Aurrera eginez, eta harresi bat eskubitara utziz, bideari jarraituko diogu.



8. Paisaia aldaketa. Altuera hartzearekin bat (890 m.), paisaiak bestelako itxura bat erakusten du. Aralarko goi larreak ikusten dira, Agautz eta Sastarri ere bai, eta barrenean Lareoko urtegia, pagadiz inguratuta.



9. Agauzko lepoa. Zelaian gora egitea besterik ez da falta Agautz mendiaren tontorrera iristeko.



10. Agautz. Muñoaundi edo Agautz (975 m.) mendiaren gailurra. Ataun Kirol Elkartek 2001ean jarritako buzoia du tontorrean. Ikuspegia bikaina da. Pare-parean, Aizkoate, Intzartzu eta Arastortz mendiak ageri dira.



11. Aralarren ikuspegia. Alde guztietara begiratuta ere, ikusmira dotorea du Agautzek, baina berezia da Aralar aldera dagoena. Ausa Gaztelu eta Larrunarri (Txindoki-Ñañarri) alde batean, eta haien segidan Aralarko goi larreak. Gertuago, zelai zabalean, harresi zirkular batekin Elorretako borda.



12. Sastarrira doan bidean utzi. Ez da bidegurutze argi bat, eta nahasteko aukera dago tarte honetan. GR-ari jarraitu behar zaio eskuin aldeko bidezidorretik, Sastarri mendira doan zidorra ezkerrera utziz.



13. Pagadian behera. Pagadian behera jarraitu beharra dago, GR arrastoei segika.



14. Txondorplaza. Basoko ordeka gune batean garai bateko txondorplaza batekin egingo dugu topo.



15. Haginak pagadian. Pagadiko bidezidorrean beherantz goazela, hagin bikain batzuk sumatuko ditugu eskubi aldera.



16. Lareoko urtegia. Pagadiaren bukaeran zabalago da bidea, eta bistan dugu Lareoko urtegia.



17. GR arrastoak utzi. Lareo inguratzen duen pistan metro batzuk egin eta gero, bidea ixten duen langa batera iritsiko gara. GR arrastoek Lareotik Lizarrustira joateko bidea adierazten dute. Horiek ezkerretara utzi, langa gurutzatu eta Urkillagako gainera doan pistari jarraitu behar zaio. Lau kilometro dira pistaz.



18. Iturria pista ondoan. Joxemi Barandiaranen 'Ur goiena, ur barrena. Bakearekin osasun. 1984-12-31' idazkia duen iturria ikusiko dugu eskubi aldera, bide kontra-kontran.



1. Amaiera puntua. Urkillaga mendateko aparkalekuan.



ARTADIA

Goierriko artadi ia denak Ataunen daude (302 ha). Gipuzkoan oso ezohikoak dira, baso mediterraneoak baitira. Garaiera txikiko basoak dira (8-10 metro), eta Ataungo kasuan kareharritzko lurzoru trinkoetan daude. Ibilbide honen lehen zatia artadian gora egiten da.



AGAUTZ, GAILURRERIAREN ERDIAN

Ezker aldera, Asundegi, Malkorra eta Aizkaizto, Leizadi gertuago, eta eskuin aldera Sarastarri. Hori tartean dago Agautz edo Muñoaundi, zelai zabal baten ertz batean. Inguru horretan leize eta koba bat baino gehiago bisitatu daitezke: Leizadieta, Leizebeltz eta Sarastarri.



LAREOKO URTEGIA

Aralarren bihotzean 1989an eraikitako urtegia da. Agauntza errekararen urak isurtzeaz gain, Ataun urez hornitzen du. Urkillagako mendateetik ibilgailuz edo oinez iritsi daiteke, eta Lizarrustitik ere bai –oinez–.